

**Joan Mari Torrealdai Nabea**

**XX. mendeko euskal liburuen katalogoa IV.**  
**1997-1998**



Gipuzkoako Foru Aldundia   Kultura, Euskara, Gazteria eta Kiroletako Departamentua

## **FITXA TEKNIKOA**

*Diputatu Nagusia*  
ROMAN SUDUPE OLAIZOLA

*Kultura, Euskara, Gazteria eta Kiroletako foru diputatua*  
LUIS M. BANDRES UNANUE

*Euskararen Normalkuntzako Zuzendaria*  
M. LORE LEANIZBARRUTIA DE BIZCARRALEGORRA

---

*Egilea*  
JOAN MARI TORREALDAI NABEA

XX. mendeko euskal liburuuen katalogoa IV. 1997-1998

*Azalaren diseinua*  
IMANOL TAPIA

*Argitaratzalea*  
JAKINKIZUNAK, S.L.

*Inprimaketa*  
LIZARRA, S.L.  
Carretera de Tafalla, Km. 1 - 31200 Lizarra

© JOAN MARI TORREALDAI NABEA

*I.S.B.N.*  
Liburuarena: 84-95234-06-8  
Bilduma osoarena: 84-922537-8-9

*L.G.*  
NA. 2.830-1999



Urdaneta kalea, 9  
Tfno.: 943 482760  
Faxa: 943 482765  
20006 DONOSTIA

## **AURKIBIDE OROKORRA**

Atarikoa .....	VII
Hitzaurrea .....	IX
UNESCOren gai-taula .....	XXVII
Euskal liburuak 1997-1998 .....	1
Aurkibideak .....	167
Idazlez idazle .....	169
Tituluz titulu .....	231

## **ATARIKOA**

*Azken hondarretan dugun XX. mendeko euskal liburugintzaren katalogoaren azken alea izango dugu, milurteko honetan, eskuarteko hau, 1997-1998 bitartea aztertzen duena hain zuzen ere.*

*Honenbestez, 1900an hasi eta mende bukaera bitartean argitaratu diren euskal liburu guztien katalogoa amaiturik izanen da sail honetako hurrengo alean. Mende beteko liburugintza bistan izango dugu orduan.*

*Euskal kulturaren eta herriaren bilakaeraren erakusle zintzoa da, zalan-tzarik gabe, liburugintzaren eboluzioa: mendearen hastapenetan zer ginen, eta ehun urte geroago zer garen ikasteko hurbilbide esanguratsua.*

*Lehenik eta behin, 1900tik 1939ko gerra zibila amaitu bitarteko berrogei urteetan mila bat liburu argitaratu ziren orotara. Hirurogei urte beranduago, urte bakarrean horrenbeste eta gehiago ere argitaratzen dira; zerbaiz gogorra gertatu behar du urtean 1000 euskal liburu ez argitaratzeko. Gainera, ez bakarrik alderdi kuantitatiboan, baita ere kualitatiboan aldakuntza eta goraldia etengabekoak izan dira. Egia da lauzpabost sailetara biltzen direla liburu gehien-gehienak (irakaskuntza, haur eta gazteak, literatura, gai orokorrak), baina egia da baita ere, alde batetik, sail horien arteko oreka gero eta berdin-tzenago doala; eta bestetik, sail horiez kanpoko liburuak ale bakan izatetik kopuru esanguratsuetara ere ari direla iristen, oraintsu arte ia inoiz euskaraz landu gabeko gaietan.*

*Ez dugu ahantzi behar, bestalde, liburugintzaren alderdi ekonomikoak bاءduela garrantzirik egungo Euskal Herrian. Ezin zitekeen, noski, bestela izan: liburugintza oparorik nola, industria editorial sendo eta osasuntsurik gabe. Hantusterik gabe, gure txikian esan genezake zorionez euskaldunok garaiz ohartu ginela kulturak oro har eta liburugintzak bereziki, sortzaileen ekarriaz gain, ekoizpen bitarteko egoki eta burujabeak ezinbestekoak direla.*

*Euskal bibliografia liburugintzarekin batera garatu dela esan daiteke. Jon Bilbaoren lan eskergak jarri zituen plazaren neurriak, euskal bibliografia modernoaren alorrean, ordura arteko bibliografia lan guztiak arakatu, ordenatu, zuzendu eta akatsez garbitu baitzituen. Esparru zabalean egin zuen, gainera, ez bakarrik euskaraz kaleratutako liburuengainean, baita ere euskarari buruz eta euskal kulturaz albo hizkuntzetan argitaratutakoengainean.*

*Joan Mari Torrealdaik bere lan pausagabe eta jarraiaren laugarren emaitza honekin, bada, euskal bibliografiagintza kontuak garbi dituela iristen da XXI. mendearren atarira.*

LUIS M. BANDRES UNANUE  
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kiroletako foru diputatua

## **HITZAURREA**

XX. mendeko euskal liburuuen katalogoaren laugarren emanaldiarekin nator oraingo honetan. 1993an argitaratu zen aurrena, 1900dik ordura arteko liburuez osatua: *XX. Mendeko Euskal Liburuuen Katalogoa (1900-1992)*. Liburukote hau osatuz joan naiz geroztik, bi urtez behin argitaraldi berri bat eginez, aurreko bi urteetako liburuekin.

Oraingo hau, hortaz, XX. Mendeko Euskal Liburuuen Katalogoaren laugarren liburukia da, 1997-98 urteetako liburu produkzioa biltzen duena. Emanaldi hau eta aurrekoak, katean datozen guztiak, espiritu eta metodologia berdin-berdinarekin, liburukiak bailiran. Bata bestearen segida da, bakoitza bere urtealdiari mugatua. Horrezaz gainera, emanaldi bakoitzean, aurreko liburukietan eman den informazioa osatzeko, zuzentzeko, ahalegina ere egin ohi dut.

Egitura aldetik ere, batasunaren eta berdintasunaren izenean, aurreko liburukieta mantendu dut.

Hiru sarbide ditu Katalogoak: gaiena, tituluena eta autoreena. Bainabatean bakarrik agertzen da informazio osoa, fitxa betea, gaien araberako atalean. Honako informazioa, alegia: titulua, autorea, argitaletxea, orrialde kopurua, neurriak, gaia, etab., 14 elementu, guztira. Gainerako bi sarbideek hona bidaltzen dute, gaiaren aipamenari esker. Jada gaiaren barruan autoreka aurkitu behar da liburua.

Gaien sailkapena egiteko, bere garaian UNESCOk gomendatu eta ISBNko agentziek erabili ohi zutena erabili ohi dut, nahiz eta gaur egun CDU erabilten den arrunki. Hainbat adituri kontsultatu ostean erabaki nuen, aurreko emanaldikoan hain zuzen, sailkapen zaharra mantentzea, berriz ere, aurreko liburukiekin batasuna eta berdintasuna gordetzearen. Behin betiko argital-penean, orduan, sistema berrian emango dut gai sailkapena.

## CORRIGENDA ET ADDENDA

Zer zuzendu, zer erantsi, eta zer kendu ere, beti bada Katalogo batean. Eta gehiago nirean, bibliografi lanetan aditu-aditua ez izateaz gainera ez bait nago lan honetara dedikatua urte osoa. Mugen jakitun naiz, eta erremedia-tzeko, hobetze prozesu bat martxan jarria dut. Pixkanaka-pixkanaka, akatsak eta hutsak zuzenduz joateko modua egin gura nuke. Eta zorionez, ez nago baka-rrrik, hainbat lagun euskaltzaleren laguntza ere bai baitut langintza honetan.

Datu-basean eguneraturik ditut datuak oro, paperean baino lehenago. Orain paperean eman nahi nituzke berrikuntza edo zuzenketa nabarmenak, ez guzti-guztiak. Ondoko lerrootan agertzen dira hain zuzen ere, aurreko ema-naldirik hona jaso ditugun informazio berriak, bai erantsi beharreko fitxa edo liburuak eta bai zuzendu beharreko datuak. Elkarren segidan jarriko ditugu ondoren hala «fitxa berriak» nola «zuzenketak». Elementuok non kokatu behar den ere agertzen da bertan.

Kokagunea nola azaltzen dugun esatea komeni da. Fitxa berri edo zuzendu hauek gaien araberako sailkapenean kokatu ditugu, ez titulutan eta ez autoreetan.

Goazen banan-banan.

Fitxa berrien kasuan, hasteko. «Lib.» deritzon zatabean zein liburukitan erantsi behar duzun azaltzen da: 1 (1900-92); 2 (1993-94); 3 (1995-96). «Or.» deritzan zatabean markatzen da delako liburukiko zein orrialdetan kokatzen den aldaketa. «Gaia» zatabean tituluari dagokion gai saila jarri ohi da. Eta, noski, «fitxa»-ren azpian liburuaren datu bibliografikoak biltzen dira.

Zerbait zuzendu behar denean, aldiz, honela azaldu dugu «Zuzenketak» ataltxoan. «Lib.» zatabean zein liburukitan egin behar den zuzenketa. Horren ondoan orrialdea dator. Eta «zut.» delakoak hain zuzen ere zatabea esan nahi du, zuzenketari dagokiona, orrialde bakoitzean bi zirrinda baitaude. «Fitxa» izenarekin fitxaren posizioa eman nahi dugu aditzera, hau da, delako zatabe horretan zenbatgarren fitxa den. «Titulua» deritzan zatabean fitxaren hasiera identifikatzalea jarri dugu. Hurrengo bi zatabeek ez dute argibide handirik behar, zer dagoen oker eta zer zuzendu behar den agertzen baita batabes-tearen ondoren.

Berriz diot, aldaketak oro Katalogoaren gorputz nagusian bakar-baka-rrik seinalatzen ditugula hemen, gaien arabera antolaturiko atalean, alegia. Titulutan edo egileen araberako sarbidean aldatzea, hori norberaren esku.

## FITXA BERRIAK

<b>Lib.</b>	<b>Or.</b>	<b>Gaia</b>	<b>Fitxa</b>
3			TURRILLAS, Alex. <i>Durangaldea hurbilago</i> • itz. Lorbide Itzulpenak • 78 or., 23 x 12 cm. • Deba, "Urkiola" Mendi Nekazaritza Elkartea, 1996
3	54	082	ELORRIAGA, Marisa. <i>Bide Hezkuntza</i> 6-8. <i>Gida</i> • mold. Artaraz, Jabi** • 15 or., 29,5 x 21 cm. • bil. LMH. Bide Hezkuntza • ISBN 84-7992-673-2 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	54	082	ELORRIAGA, Marisa. <i>Bide Hezkuntza</i> 8-10. <i>Gida</i> • mold. Artaraz, Jabi** • 15 or., 29,5 x 21 cm. • bil. LMH. Bide Hezkuntza • ISBN 84-7992-685-6 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	54	082	ELORRIAGA, Marisa. <i>Ingurugiroa</i> 8-10. <i>Gida</i> • mold. Artaraz, Jabi** • 16 or., 29,5 x 21 cm. • bil. LMH. Ingurugiroa • ISBN 84-7992-723-2 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	56	082	ISASI, Belinda. <i>Bide Hezkuntza</i> 10-12. <i>Gida</i> • mold. Artaraz, Jabi** • 24 or., 29,5 x 21 cm. • bil. LMH. Bide Hezkuntza • ISBN 84-7992-697-X • Euba, Ibaizabal, 1996
3	56	082	ISASI, Belinda. <i>Ingurugiroa</i> 10-12. <i>Gida</i> • mold. Artaraz, Jabi** • 16 or., 29,5 x 21 cm. • bil. LMH. Ingurugiroa • ISBN 84-7992-735-6 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	56	082	ITUARTE, M <sup>a</sup> Eli. <i>Ingurugiroa</i> 6-8. <i>Gida</i> • mold. Artaraz, Jabi** • 15 or., 29,5 x 21 cm. • bil. LMH. Ingurugiroa • ISBN 84-7992-711-9 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	57	082	ZAITEGI, Maria Angeles; CAMIÑA, Kepa. <i>Osasuna</i> 6-8. <i>Gida</i> • mold. Artaraz, Jabi** • 23 or., 30 x 21 cm. • bil. LMH. Osasuna • ISBN 84-7992-780-1 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	57	082	ZAITEGI, Maria Angeles; CAMIÑA, Kepa. <i>Osasuna</i> 8-10. <i>Gida</i> • mold. Artaraz, Jabi** • 31 or., 30 x 21 cm. • bil. LMH. Osasuna • ISBN 84-7992-789-5 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	57	082	ZAITEGI, Maria Angeles; CAMIÑA, Kepa. <i>Osasuna</i> 10-12. <i>Gida</i> • mold. Artaraz, Jabi** • 39 or., 30 x 21 cm. • bil. LMH. Osasuna • ISBN 84-7992-798-4 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	65	085	AREJITA, Marije eta beste. <i>Txor-Txor</i> 3. <i>Euskara (Batueraz)</i> • mold. Umerez, Nekane**; il. Jesse; Telleria, Joxemari; Lucas, Belen • ed. 2, 200 or., 26,5 x 19,5 cm. • bil. Txor-Txor • ISBN 84-7992-310-5 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	65	085	AREJITA, Marije eta beste. <i>Txor-Txor</i> 4. <i>Euskara (Batueraz)</i> • mold. Umerez, Nekane**; il. Jesse; Telleria, Joxemari; Lucas, Belen • ed. 2, 200 or., 26,5 x 19,5 cm. • bil. Txor-Txor • ISBN 84-7992-322-9 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	65	085	ARTACHO, Rafael. <i>Gure Aita</i> 3 ( <i>Batueraz</i> ) • itz. Barruetabéña, Sabin; il. Alvarez, José María; Chaves, Antonio; Gutierrez, Gerardo; San Blas, Marcos • ed. 2, 152 or., 27 x 21,5 cm. • bil. Gure Aita • ISBN 84-7992-433-0 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	66	085	BERRIOTXOA, Joseba. <i>Ingurugiroa</i> 10-12. <i>Fitxak</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. Izarra, Patricia; Royo, Javier • 23 or., 27 x 21 cm. • bil. LMH. Ingurugiroa • ISBN 84-7992-734-8 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	66	085	BILBAO, Maite; GARAIZAR, Begoña; HERRERA, Eukene; LAZKANO, Edurne; PINUAGA, Amaia. <i>Txor-Txor</i> 5. <i>Euskara (Batueraz)</i> • il. Alonso, Luis; Jesse; Telleria, Jose Luis • ed. 2, 200 or., 26,5 x 19,5 cm. • bil. Txor-Txor • ISBN 84-7992-403-9 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	67	085	ELORRIAGA, Marisa. <i>Bide Hezkuntza</i> 6-8. <i>Fitxak</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. Izarra, Patricia; Royo, Javier • 15 or., 21 x 27cm. • bil. LMH. Bide Hezkuntza • ISBN 84-7992-672-4 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	67	085	ELORRIAGA, Marisa. <i>Bide Hezkuntza</i> 8-10. <i>Txitxurrio herrian</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. San Blas, Marcos • 15 or., 24,5 x 21 cm. • LMH. Bide Hezkuntza • Euba, Ibaizabal, 1996
3	67	085	ELORRIAGA, Marisa. <i>Bide Hezkuntza</i> 8-10. <i>Txatxo laguntaldea hirian</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. San Blas, Marcos • 31 or., 24,5 x 19 cm. • bil. LMH. Bide Hezkuntza • ISBN 84-7992-683-X • Euba, Ibaizabal, 1996
3	67	085	ELORRIAGA, Marisa. <i>Ingurugiroa</i> 8-10. <i>Fitxak</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. Izarra, Patricia; Royo, Javier • 23 or., 27 x 21 cm. • bil. LMH. Ingurugiroa • ISBN 84-7992-722-4 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	67	085	ELORRIAGA, Marisa. <i>Ingurugiroa</i> 8-10. <i>Txatxo laguntaldea ingurunea ezagutzen</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. San Blas, Marcos • 31 or., 24,5 x 19 cm. • bil. LMH. Ingurugiroa • ISBN 84-7992-721-6 • Euba, Ibaizabal, 1996

Lib.	Or.	Gaia	Fitxa
3	72	085	ISASI, Belinda. <i>Bide Hezkuntza 10-12</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. Izarra, Patricia; Royo, Javier • 23 or., 27 x 21 cm. • bil. LMH. Bide Hezkuntza • Euba, baizabal, 1996
3	72	085	ISASI, Belinda. <i>Bide Hezkuntza 10-12. Fitxak</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. Izarra, Patricia, Royo, Javier • 23 or., 27 x 21 cm. • bil. LMH. Bide Hezkuntza • ISBN 84-7992-696-1 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	72	085	ISASI, Belinda. <i>Ingurugiroa 10-12</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. Alonso, Luis • 31 or., 24,5 x 21 cm. • bil. LMH. Ingurugiroa • Euba, Ibaizabal, 1996
3	72	085	ITUARTE, Mª Eli. <i>Ingurugiroa 6-8. Fitxak</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. Izarra, Patricia; Royo, Javier • 15 or., 27 x 21 cm. • bil. LMH. Ingurugiroa • ISBN 84-7992-710-0 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	72	085	ITUARTE, Mª Eli. <i>Ingurugiroa 6-8. Txitxurrio baserrian eta parkean</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. San Blas, Marcos • 15 or., 24,5 x 21 cm. • bil. LMH. Ingurugiroa • ISBN 84-7992-709-7 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	76	085	UMEREZ, Nekane; Arejita, Marije; KORTAZAR, Maite. <i>Txor-Txor 2 - Prozedura Koadernoa I (Batueraz)</i> • il. Telleria, Joxemari • ed. 2, 64 or., 29,7 x 21 cm. • bil. Txor-Txor • ISBN 84-7992-164-1 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	76	085	UMEREZ, Nekane; AREJITA, Marije; KORTAZAR, Maite. <i>Txor-Txor 2 - Prozedura Koadernoa II (Batueraz)</i> • il. Telleria, Joxemari • ed. 2, 64 or., 29,7 x 21 cm. • bil. Txor-Txor • ISBN 84-7992-165-X • Euba, Ibaiza bal, 1996
3	76	085	UMEREZ, Nekane; AREJITA, Marije; KORTAZAR, Maite. <i>Txor-Txor 2 - Prozedura Koadernoa III (Batueraz)</i> • il. Telleria, Joxemari • ed. 2, 64 or., 29,7 x 21 cm. • bil. Txor-Txor • ISBN 84-7992-166-8 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	77	085	ZAITEGI, María Angeles; CAMIÑA, Kepa. <i>Osasuna 6-8</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. Gonzalez, Eduardo • 63 or., 27 x 21 cm. • bil. LMH. Osasuna • ISBN 84-7992-779-8 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	77	085	ZAITEGI, María Angeles; CAMIÑA, Kepa. <i>Osasuna 8-10</i> • il. Markaida, Juan Luis • 55 or., 27 x 21 cm. • bil. LMH. Osasuna • ISBN 84-7992-788-7 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	77	085	ZAITEGI, María Angeles; CAMIÑA, Kepa. <i>Osasuna 10-12</i> • mold. Artaraz, Jabi**; il. Markaida, Juan Luis • 55 or., 27 x 21 cm. • bil. LMH. Osasuna • ISBN 84-7992-797-6 • Euba, Ibaizabal, 1996
3	77	086	ABASOLO, Resu; AREXOLALEIBA, Julen; BILBATUA, Marian; GARMENDIA, Jesus; SAINZ, Matilde. <i>Esaizu. Euskal Hizkuntza eta Literatura. DBH 1</i> • il. Erostarbe, Xabier • 185 or., 28 x 21 cm. • bil. Erein proiek-tua • ISBN 84-7568-612-5 • Donostia, Erein, 1996
3	77	086	ABASOLO, Resu; AREXOLALEIBA, Julen; BILBATUA, Marian; GARMENDIA, Jesus; SAINZ, Matilde. <i>Esaizu. Hizkuntz Tailerrak. DBH 1</i> • il. Garmendia, Iñaki • 117 or., 28 x 21 cm. • bil. Erein proiek-tua • ISBN 84-7568-612-5 • Donostia, Erein, 1996
3	91	117	IZETA, Mariano. <i>Baztango Hiztegia</i> • 217 or., 24 cm. • ISBN 84-235-1506-0 • Iruñea, Nafarroako Gober-nua, 1996
3	135	219	AGIRREAZKUENAGA, Joseba. <i>Euskal gizartearen barrena euskaltzaletasun politikoaren sorrera garaian: Zaldunak, matxinoak, enpresariak, langileen eraketa (1789-1876)</i> • 171 or., 21 x 15 cm. • bil. Ensayo • ISBN 84-88890-05-2 • Bilbo, Beitia, 1995

## ZUZENKETAK

<b>Lib.</b>	<b>Or.</b>	<b>Zut.</b>	<b>Fitxa</b>	<b>Titulua</b>	<b>Jartzen du</b>	<b>Jarri behar du</b>
1	135	2	2	Jostailuen	Santesteban, Karlos	Santisteban, Karlos
1	566	1	4	Ioanes	Ioanes diraolaren poema bilduma	Ioanes D'Iraolaren poema bilduma
1	566	1	5	Iraingo	Iraingo apaiz gaztearen Kantutegi zaharra	Iraingo apez gaztearen Kantutegi zaharra
1	585	1	10	Sagardoaren	Artola, R.	Artola Larrañaga, Ramon
1	585	1	11	Ustez	Artola, R.	Artola Larrañaga, Ramon
3	27	2	1	Zeru urdina	[Fitxa osoa]	[Ezabatu]
3	10	1	3	Ixtorio	[Gaia] 015	212
3	10	1	7	Hegiko	[Gaia] 015	212
3	18	2	1	Irudi	[Gaia] 015	111
3	26	1	2	Diccionario	[Gaia] 015	118
3	26	1	3	Diccionario	[Gaia] 015	118
3	26	1	4	Diccionario	[Gaia] 015	118

## **1997-1998 URTEETAKO LIBURUGINTZA**

1997 eta 1998 urteetako liburugintzaren uztaritza 2.687 titulutakoa da nire datuetan. Bibliografia lanetan dabilenarentzat jakina da datu hauetan ez direla inoiz azken datuak izaten, baina tira, ez dira urrutti ibiliko.

ISBNko agentzia espanyarrak eman ohi dituen emaitzetatik baino errealtitatearekiko hurbilago egongo al dira behintzat! Nire 2.687 titulu horiek 2.276 dira Espainiako agentziarentzat. Laurehun titulutik gorako aldea dago bion artean.

Bien arteko alde hau, pentsa liteke hark estu eta nik zabal jokatzetik datorrela. Alegia, liburuaren definizio zehatza betetzen duten inprimakiak bakarrak hartzen dituela hark kontuan, eta nik bestelako materialak ere bai. Ez da hori. Diferentzia bat badago bai, alderdi tekniko horretatik begiratuta. ISBNdunak bakarrak hartzen ditu hark aintzat. Nik, aldiz, ISBN gabeko 136 inprimaki ere kontabilizatu egin ditut. (Beste asko kanpoan utzi ditut, ISBNko normatiba ez dutelako betetzen.) Zergatik ISBN gabeko hauetan kontabilizatu? Berriz diot: niretzako, liburu-liburu dira, nahiz eta ISBNrik ez izan. Simpleki, ez dute Madrilgo edo Parisko ISBN agentziekiko tramatizazioa bete, baina liburu horiek liburudendatan daude salgai, eta liburutegietan daude konsultagai. Tramatizazio arazo batengatik liburuak ez du liburu izaera galtzen.

Edozein modutan ere, irizpide-diferentzia horrek 136 kasu esplikatzen ditu gehienez ere. Beste kasu asko gelditzen dira esplikazio gabe. Informazioa biltzeko metodologian dagoke gakoa. ISBNren agentziaren kasuan, argitaletxeak bidaltzen du informazioa fitxa gisa, bidaltzen badu. Informazio horrek ez du beste kontrasterik. Nire lanari dagokionez, informazio iturri nagusiena liburua bera da. Eta horren faltan edo horrez gain, badut argitaletxeen, banaketarien eta liburutegien informazioa ere.

Diferentzia bat badago bion artean, eta da nik ez dudala oraingoz euskarri informatikoko materialik aztertzen, inprimakiak bakarrik.

Zifrak ez dira sakralizatu behar, hala ere, ez ISBNrenak, ez nireak. Baina differentzia nabarmen honek behar zuen adierazpen bat. Horra.

Fidagarritasuna dago auzitan, nahi bada. Gehiago ere bai: erreferentzialtasuna. Mundu guztiarentzat bi urtetan guk 2.276 titulu atera ditugu, eta ez 2.687. Zergatik? ISBNko agentzia espanyarrak esan duelako. Eta Iparraldekoak?

ISBNko agentziaren arabera Estatu espanyarreko hizkuntza minorizatuetako liburu produkzioan hirugarren lekua da gurea, eta ez bigarrena.

Katalanekin ez dago konparatzerik, oso goitik dabilta: 14.174 liburu (Valentziakoa eta Aranekoa barne). Gailegoak eta gu, aldiz, nahikoa paretsu gabilta: 2.687 titulu euskaraz (nire datuetan) eta gailegoz 2.464.

## Argitalgintza

Mundu editorialaren lehen argazkiak panorama nahasia jartzen digu begien aurrean. 276 agente (pertsona, enpresa edo erakunde) agertzen dira argitaratzaile gisa. Guztiek berdin atera izan balute, 10 liburu ere ez bakoituzak. Hori ez da horrela izan, noski, baina atomizazioa handia da. Erdiak eta gehiago dira (144 argitaratzaile, % 52,2) bi urteotan liburu bat bakarra atera dutenak. Are gehiago: bi urteotan 10 titulu azpitik ibili dira argitaratzaile guztien gehien-gehiena (% 80,8). Baina datu harrigarria agian beste hau da: argitalpen instituzionala aparte utzita, eta bi urteak batera kontatuta, 25 titulutik gora 10 argitaletxek bakarrik publikatu dute. Hamarrek bakarrik.

Lehen hamarren artean daude: Elkarlanean, Ttarttalo, Ibaizabal, Erein, Giltza-Edebe, Alberdania, Zubia-Santillana, Aizkorri-Everest, Desclée De Brouwer, Gaiak.

Hamar horien artean ez dira sartzen, azpitik dabiltzalako, horren ezagunak diren Susa, Sendoa, Pamiela, Gero, Txalaparta, Igela, Elhuyar.

Okasiozko edo editore noizbehinkarien artean, batetik, eta bestetik editore profesionalen artean, bestelako dezente dago, eskuarki komertzialak ez direnak.

Hiru argitalpen maila edo mota bereiz ditzakegu: edizio instituzionala (gobernuak, Aldundiak, udalak), edizio parainstituzionala edo gisakoa (Universitateak, Kutxak) eta Elkarte eta kultur taldeen argitalpena.

Hiru edizio mota hauetan importanteena, kopuru aldetik, argitalpen instituzionala da: 442 titulu, hau da, % 16,4 suposatzen du honek urteko edizio osoaren gain. Eusko Jaurlaritzaren indarra azpimarratu behar da hemen Nafar Gobernuaren eskasiarekin batera. Diputazioetan Gipuzkoakoa gailentzen da nabarmen, 60tik gora titulu. Udalen artean 80 bat liburu argitaratu dituzte.

Unibertsitate eta Kutxa desberdinen artean 125 bat titulu ekoiztu dute. Pixka bat gutxiago atera dute kultur talde, elkartea, fundazio eta gisakoek.

Orain artean aipatu ditugun ekoizle desberdinen arteko produkzioa laburbiltzen badugu, zera ageri da, alegia, urteko produkzioaren % 40 bat

titulu argitaletxe komertzialetatik aparte ateratzen dela. Edizio mota honek, oro har, gauza batean huts egiten du, promozioan. Indar gutxiz kaleratzen dira ekoizle hauen tituluak, gehienetan edo beti. Hauentzako guztientzako balio duen akats orokor honez gain, bakoitzak bere joerazko arriskuak ditu, hala nola, plangintzarik eza, profesionaltasun eskasa, zabalketa urria, etab.

Profesionaltasunak zerikusi handia du editorialaren tamainarekin. Minimo batzuetatik behera ez dago egitura aski zabal eta indartsurik liburuaren prozesuak eskatzen dituen betebehar guztiak ongi konplitzeko. Enpresaren tamaina kritiko horretan dago euskal editore andana bat. Liburugintzaren sanotasun seinale litzateke urtean dozena pare bat titulu berri argitara ematen duen ekoizle gehiago baleude. Ondoko zerrendan ere garbi ikusten da aurreneko hiruzpalauetatik hurrengoetara jauzi handia dagoela, handiegia nire gusturako.

Hona aurreneko hamarren zerrenda eta berauen ekoizpena:

<b>Argitaletxea</b>	<b>Titulu kopurua</b>	<b>%</b>
Elkar/Elkarlanean	670	25
Ttarttalo	272	10
Ibaizabal	263	9,8
Erein	157	5,8
Giltza-Edebe	76	2,8
Alberdania	53	2
Zubia-Santillana	42	1,5
Aizkorri-Everest	36	1,3
Desclée De Brouwer	29	1,1
Gaiak	26	1
<b>Guztira</b>	<b>1.624</b>	<b>% 60,5</b>

Aurreko urteetako *ranking*-ak gogoratzen dituenak irizpide aldaketa bat antzemango du aurtengoan: editore komertzialak bakarrik aintzat har-tuta osatu dugu aurtengo zerrenda. Zerrendatik at utzi dugu edizio instituzionala, ez muntarik ez duelako, kontrara baizik. Ez sartzearen arrazoia da, argitalketa instituzionalaren pisuak gainerakoen arteko erlazioa dis-tortsionatu egiten duela.

Zerrendan agertzen diren hamar horiek ekoizpen osoaren % 60 hartzen dute. Esanguratsua noski. Are gehiago, ordea, zera ikustea, % 50 lehen lauek bakarrik osatzen dutela, Elkarlanean, Ttarttalo, Ibaizabal eta Erein argi-


taletxeek. Aurreko biurtealdikoarekin alderaturik, argitaletxe guztiekin egin dute gora titulu ekoizpenean, salbu Ereinek.

## Argitalpenaren zifrak

### 2.687 titulu

2.687 titulu jaso ditut 1997-98 urteei dagokien liburu produkzio gisa.

Zertan esanik ez da sekula baino titulu gehiago atera dela. Aurreko biurtealdian baino 300 titulu gehiago, eta 90eko hamarkadako batez bestekotik 300 titulu gora egin dugu 1998an. Hamarkadako batez bestekoa 1.163 titulu da.



Urte batean gora eta hurrengoan behera ibili izan gara azken urteotan, baina ardatz jakin baten inguruan jira eta bira bagenbiltza bezala. Biurtealdi honetan ez da horrela, bietan gora egin baitu titulu-produkzioak. 1998an 18,6 puntu egin du gora produkzioak aurreko urtekoaren gain. 1997an ere gora egina zen: 12 puntu orduan. Bi urtetan, beraz, gorakada dezentea egin du, 230 bat batean eta 130 bestean. Baina ez jakin joera berri baten seinale denentz gorakada hori. Denbora aldetik talaia garaiagoa behar denez, ezin da ezer finkorik erabaki hala-hola, perspektiba laburregian. Nolanahi ere grafikoa hor dago, eta horrek gora goazela seinalatzen du.

## *Nobedadeak eta berrargitaraldiak*

Txanponaren bi aurpegiak dira nobedadea eta berrargitaraldia, bata lehen aldiz atera dena eta bestea bi edo gehiagotan argitara emana.

1997-98ko biurtealdian, zenbaki absolututan, hazkundeak izan da bi konzeptuetan, baina ez bietan berdina: 128 titulu gehiago daude nobedadeen kapituluan, eta 189 liburu berrargitaratu gehiago. 1995-96ko biurtealdian, aldiz, nobedadeen pisua handiagoa zen, oraingoan baino. Urtealdi honetan % 71 da nobedadea eta % 39 liburu berrargitaratua. Normala da hori, berrargitalpenak gora egitea, eta seinale ona argitaletxeak finkatuz doazela esan nahi duen neurrian.

Argitalpenaren arabera mailakaturik honela sailkatzen da 1997-98ko produkzioa.

	<b>Tituluak</b>
Lehen argitaraldia	1.913
Bigarren argitaraldia	287
Hirugarren argitaraldia	138
Laugarren argitaraldia	101
Bosgarren argitaraldia	85
Seigarren argitaraldia	67
Zazpigarren argitaraldia	42
Zortzigarren argitaraldia	21
Bederatzigarren argitaraldia	14
Hamargarren argitaraldia	14
Hamaika argitaraldi edo gehiago	40
Hainbatgarren berrargitaraldia	9

Nahiz eta argitaraldi gehien-gehienak urte batetik besterakoak izan, badira urte berean argitaraldi bat baino gehiago izan dituztenak. 1997an argitaraldi bat baino gehiago izan dituztenak 24 izan dira eta 1998an 10 titulu. Horietako batek (*Ostegunak*) 5 edizio izan ditu urte berean. Lauko bi daude: 1997an *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* eta 1998an *Tentazioak*.

1998ko urte bukaeran bi liburu dira ediziota gailurrean daudenak: aipaturiko *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* da bat, 20. argitaraldian baitago; eta *110 Street-eko geltokia*, bestea (17 argitaraldi oraingo argitaletxearekin eta 3 aurrekoarekin).

Hauen jarraian datoz: 17rekin, *Istanbulen elkartuko gara*; 16rekin, Joxan Ormazabalen *Pernando Amezketarra*, eta *Babilonia*; 15ekin, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, eta *Narrazioak*; 14rekin, *Desagertutako emakumea*; 13rekin, *Londresen nago aitonarekin*, eta *Sherlock Holmes-en istorioak-1*; 12rekin, *Eskubeltz taldearen abenturak*, eta *Atzapar arrastoak*; 11rekin, *Esaera zaharrak eta txiste berriak*, *Goizuetako ezkongaiak* eta *Irabazi eta galdu*.

#### *Nobedadeetan jatorrizko eta itzulitako liburuak*

Lehen edizioari gagozkiola, euskaraz sorturiko liburuaren aldekoa izan da bi urte hauetako eboluzioa. Aurreko biurtealdian jatorrizko liburuaren pisua % 61,6 izan zen, eta oraingoan % 67,4. 1997-98 urtealdian, hortaz, % 6 jaitsi da itzulpena, oro har.

Bi urteotako nobedadeetako jatorrizko liburuen kopurua 1.222 titulukoa izan da. Itzulpenak bildu duen uzta jatorrizkoaren erdia da, 616 titulu.

Jatorrizko liburuaren eta itzulitakoaren arteko proportzioa egokia ote? Ez dakit. Baino oraingo erlazioa duela urte batzuetakoa baino orekatuagoa delakoan nago.

Hona 90eko hamarkadan, nobedadeen barruan, jatorrizko liburuak eta itzulitakoak izan duten eboluzioa urtez urte:

<b>Urtea</b>	<b>Jatorrizkoa</b>	<b>Itzulpena</b>
1990	61	39
1991	57,7	42,3
1992	56,6	43,4
1993	56,4	43,6
1994	61,7	38,3
1995	63,3	36,7
1996	59,5	40,5
1997	66,2	33,8
1998	68,3	31,7

## Ekoizpenaren gai sailetan barrena

### 1997/1998ko LIBURUAK: GAI-SAILKAPENA


Sailak	Zenb. abs.	%
<b>0. OROTARIKOAK</b>	<b>685</b>	<b>25,5</b>
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Poligrafiak. Museoak	60	2,2
— Haurrentzako argitalpenak	625	23,2
<b>1. FILOSOFIA</b>	<b>23</b>	<b>0,85</b>
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia-sistemak. Psikologia. Logika. Etika	23	0,85
<b>2. ERLIJOIA. TEOLOGIA</b>	<b>27</b>	<b>1</b>
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia moral. Liturgia. Pastoral-teologia. Eliza. Kristauez besteko erlijioak	27	1
<b>3. GIZARTE-ZIENTZIAK</b>	<b>1.116</b>	<b>41,5</b>
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea. Herri-administrazioa. Gizarte-laguntza. Etnologia	194	7,2
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	922	34,3
<b>5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK</b>	<b>18</b>	<b>0,66</b>
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia. Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	18	0,66
<b>6. ZIENTZIA ERABILIAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA</b>	<b>73</b>	<b>2,7</b>
— Medikuntza. Injinerutza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia. Etxeko ekonomia. Industria. Kimikagintza. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza. Sukaldaritzan	73	2,7
<b>7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK</b>	<b>157</b>	<b>5,8</b>
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa. Margogintza. Argazkigintza. Musika	134	5
— Jostaldiak. Jolas eta jokuak. Kirolak	23	0,8
<b>8. FILOLOGIA. LITERATURA</b>	<b>486</b>	<b>18,1</b>
— Hizkuntzalaritzan. Filologia	67	2,5
— Literatura. Literatur historia eta kritika. Literatur generoak	419	15,6
<b>9. GEOGRAFIA. BIOGRAFIA. KONDAIRA</b>	<b>102</b>	<b>3,8</b>
— Geografia	22	0,81
— Biografiak	61	2,27
— Kondaira	19	0,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.687</b>	<b>100</b>

Azterketaren bigarren zatian ekoizpena gaien arabera sailkaturik aztertu ohi dugu. Ez euskara eta ez euskal liburua, ez daude berdin presente bizi-tzako eta gai sailetako esparru guztietan. Urtea joan eta urtea etorri, haur literaturan liburu ugari dago eta gutxi filosofian. Ez da kasualitatea. Irakaskuntzan produkzioa bete-betean dagoen bitartean, makina bat alor liburu mixerable bat gabe daude. Ez da kasualitatea.

Desoreka honek sakoneko gaitza salatzen du, diglosiarena.

Urtea joan eta urtea etorri, ez da kasualitatea gai ekoitzuenen zerrendaren puntaren puntan agertzen direnak beti berak izatea: Irakaskuntza, Haur eta Gazte Liburua eta Helduen literatura. Hiruen artean bi urteotako produkzio osoaren % 73 osatzen dute. Oso goitik. Beti bezalatsu.

(Hiru gai-sail espezifiko dira goiko horiek. «Giza eta gizarte zientziak» ize-nekoa ere hor dago helduen literaturak baino titulu gehiago biltzen dituelarik. Baino hori ezin dugu beste hauen parera ekarri, zabala baita oso, zaku handi bat.)



#### *Hezkuntza eta Irakaskuntza: 900 titulu*

922 titulu bildu ditut sail honetan. Titulu asko dira, eta pisu handia du liburu mota honek produkzioaren baitan: % 34,3. Publikatzen den hiru liburutik bat baino gehixeago dira tipo honetako liburuak.

Liburu mota hau da titulutan txapelduna, eta aletan ere bai, seguru, beronek ditu tiradarik handienak eta kontsumo ziurtatua.

Aurreko biurtealdian baino 300 titulu gehiago publikatu dira, eta produkzioarekiko pisua ere igo egin da pittin bat.

Mailaz maila sailkatuz honela banatzen da irakaskuntza liburuaren ekoizpena:

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak	15,8
Haur Hezkuntza. Oinarritzko irakaskuntza	17
Lehen Hezkuntza	28
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	30
Euskararen irakaskuntza	7,7
Besterik	1,5
%	100

Hezkuntza erreformari lotua doan ikasmaterialgintza da hau. Ez da, horiaz, zaila asmatzea zeintzuk izango diren azpisailik beteenak: LH eta DBH. Sailaren barruan pisu beretsua dute biek ere. Begibistako aldea dago gainerako ikasmailetarra.

Ia erdibana banatzen da nobedadeen eta berrargitalpenen indarra. Nobedadeen indarra DBHn dago batez ere, esan daiteke betetzeke zeuden esparruak betetzen ari direla argitaletxeak oraindik. LHn, aldiz, nobedade edo titulu berririk ez da ia atera bi urte hauetan, berrargitalpenarekin konparatz. Ikasmaila horretan berredizioak % 87 suposatu du.

Nobedadeen barruan, jatorrizko liburuak itzulitakoa bikoiztu egiten du: % 66 % 34ren aurka. Ohartxo pare batez osatu nahi nituzke portzen-taia hauek: bat, testuliburuez ari garela kontuan izanda, handia iruditzen zait itzulpenaren indarra; eta bi, egiazko indarra bistakoa baino handia-goa dela, testuliburu asko itzulpen baitira izan, nahiz eta «kamuflaturik» aurkeztu merkatuan.

#### *Haur eta gazteentzako liburuak: 600 titulu*

625 tituluz hornitzen da sail hau. Aurreko biurtealdiko kopuru bera da, tituluren batzuk gorabehera. Liburu mota honek ez du izan inola ere ikasmaterialek izan duten gorakadarik. Bere pisua ere ia-ia mantendu egin da, pixka bat jaitsi. Ia lau liburutik bat mota honetako liburua da euskaraz.

Lehen edizioaren indarra handia da liburu mota honetan: % 69, hau da, 431 titulu berri bi urteotan. Nire gusturako ez da seinale ona berrargitalpenaren ahulezia hau, merkatu berrien falta azaltzen baitu.

Liburu mota honek abiada hartu zuenetik gauza bera gertatzen da, eta da nobedadeen barruan euskaraz gutxi sortzen dela, 1997-98 urteetan argitara eman den % 69,5 erdaratik itzulia dela. Jatorrizko liburuen hutsune honek autoreen eskasia salatuko luke.

*Literatura: 400 titulu*

Bi urte hauetan literatur liburuen kopuruak ez du gora egin, alderantziz baizik. 40 bat liburu gutxiago produzitu dira oraingoan. Kopuru absolutuan jaitsiera ez da handia. Jaitsiera esanguratsuagoa da, agian, liburu produkzio osoaren baitan: % 15,6ko indarra du orain. Zera esan nahi du honek, beste liburu mota batzuk haziz eta zabalduz doazela eta literatur produkzioa pitin bat estankaturik dagoela. Produkzioaren gailurra jo ote du, bada?

419 titulu horietatik % 69,5 da hemen ere lehen edizioa, haur eta gazteen literaturan bezalatsu proportzioan. Iruditzen zait hemen ere berrargitaraketak indar gehiago beharko lukeela.

Nobedadeen testu jatorriak bai ez duela zerikusirik haur eta gazte literaturakoarekin. Han itzulpena da nagusi. Hemen, ostera, jatorrizko liburua, proportzio handian gainera: % 77,5. Euskaraz sorturiko tituluak 225 izan dira bi urteotan. Itzulitakoak, aldiz, 66 titulu.

Generoz genero honela sailkatzen da literatur ekoizpena:

Eleberria. Ipuina	60,8
Olerkia	9,5
Antzerkia	5,9
Herri literatura. Bertsoa	4,5
Saioa	7,1
Generoak nahasian	5,2
Artikuluak. Gutunak...	2,6
Besterik	1,2
%	100

Goiko taula hori berez mintzo da. Hor ikusten da argi eta garbi zeintzuk diren irakurleen, idazleen eta editorialen preferentziak, zer genero hobesten duten, alegia. Hamarretik sei liburu narratibakoak dira, horrekin dena esanda dago.

## *Giza eta gizarte zientziak: 465 titulu*

Titulu asko direla esanez has gaitezke. Bai, baina ez. Ez dira liburu asko, kontuan izanda zenbat alor biltzen den «Giza eta gizarte zientziak» izeneko sail honetan: Historia, Geografia, Edertia, Linguistika, Etnologia, Zuzenbidea, Politika, Ekonomia, Soziologia, Filosofia eta beste. Zer dira 465 titulu eremu horietan guztietan banaturik?

Pixkanaka-pixkanaka haziz doan saila da hau, gorabidean, baina mantsioegi doalakoan nago, eta ekoizpen osoaren gain % 17,3 barik gutxienez % 25 izan beharko litzatekeela uste dut.

Ahuleziaren beste marka bat da, berrargitalpenik ez izatea apena: % 2,6. Susmoa dut liburu mota hau ez dela egiten hainbeste merkatuaren egarria asetzeko, baizik eta bestelako helburuekin, hala nola, erakundeen elebitasun erabakia, taldeen lana ezagutzera ematea, euskararen hutsuneak betetzea, etab.

Berrargitalpenak baino indar handiagoa du itzulpenak, baina honek ere ez handia: % 13,5. Ondo azterzera, handiagoa litzateke portzentzia, hemen kokatzen baitira erakunde publikoen hainbat eta hainbat liburu elebidun, oker ez banago gehienetan erdaraz idatzi eta euskaratuak, nahiz eta itzulpenaren aztarrenik ez agertu liburuaren kreditu orriean.

Gai eremuka honela sailkatzen da bi urteotako produkzioa:

Filosofia eta Psikologia	4,9
Soziologia eta Estatistika	11,2
Zientzia politikoak eta ekonomikoak	10,9
Zuzenbidea. Administrazioa	10,7
Linguistika eta Filologia	14,4
Geografia eta bidaiaiak	4,7
Historia eta biografiak	17,2
Etnologia	7,5
Edertia	10,5
Besterik	7,7
%	100

## *Gainerakoak: 226 titulu*

Hiru sailtxo aipatu ohi ditugu azken zati honetan, nahiz eta baden gehiagorik ere: Aisia liburua, zientzia eta teknika gaietakoa eta erlijiozkoak.

Aurreko sailekin konparatuz, maila apalekoak dira hauek. Hiruek batera ere 226 titulu osatzen dute, eta produkzio barnean % 8,5 pisua dute.

Inguruko kulturetan horren garatua eta modakoa den Aisiaren alorrean, 100 bat titulu atera dugu gurean bi urteotan, eskultura eta margolaritza dela, gastronomia dela, dela musika, dela argazkigintza edota kirol eta jokoien sailean. Ez da liburu asko, ez horixe, baina duela urte batzuk baino gehiago bai differentziar.

Zientzia eta teknikaren alorretan ere aurrera goaz. Irakaskuntzarako ez diren ehun bat titulu atera dira, hasi zientzia zehatz eta aplikatu zein teknologikoetan, segi merkataritzan eta medikuntzan bukatu bitartean.

Historikoki euskal liburugintza dominatzen zuen liburu motak, erlijiozkoak, orain ez du publikazio mailan indarrik. 30 eskasean gelditzen dira nik bi urteotan bildu ditudan tituluak. Hala ere, literatura erlijiosoen errerealitatea ez da ongi biltzen hemen, bai baita bestelako materialik eliz zirkuitutan asko erabiltzen denik, katekesia dela, pastorala dela.

## **ESKERRAK EMATEA**

Gipuzkoako Foru Aldundiari, zehazki Kultura eta Euskara Departamentuari bihotzez eskertzen diot 90eko hamarkadan eman didan laguntza ekonomikoa. Laguntza horri esker lan egin ahal izan dut, eta horrela gauzatu nire aspaldiko amets hora, XX. mendeko bibliografia burutzea, alegia. Eskuartean duzun hau bezalako beste entrega bat bakarra falta zait.

Bidea egiten lagundu didaten beste hainbat ere eskertu nahi nituzke, batzuk izen eta guzti eta izenik eman gabe asko eta asko. Izenez aipatu beharrekoen artean daude, gutxienez, Arantxa Artzamendi, Agurtzane Juanena, Ritxi Lizartza, Xabier Etxaniz. Oso gogoan ditut, baita ere, urtero informazioa eskura eman ohi didaten argitaratzaileak, handiak eta txikiak. Hainbat autore ere aipa ditzaket, informazioa gehitu, zuzendu edo osatzeko deitu edo idatzi didatenak. Nire eskerrik beroenak guzti-guztioi. Aurretiazko eskerrak, azkenik, liburu honetako akatsak zuzenduz eta hutsuneak betez lagunduko didazuen guztioi. Ea guztion artean XX. Mendeko Katalogo bibliografiko jator bat osatzen dugun!

## **LABURDURA ETA KODEAK**

**bild.** = bilduma

**cm.** = zentimetroak

**eb.** = elebiduna

**ed.** = berrargitalpena

**il.** = ilustratzailea(k), argazkilaria(k)

**itz.** = itzultzailea(k)

**mold.** = moldatzailea(k)

**or.** = orrialdeak

**s.d.** = data gabea

Moldatzailearen izenaren ondoko izartxoak:

\* = Prestatzailea, egokitzalea, paratzalea, biltzailea

\*\* = Zuzendaria, promotorea, antolatzalea, arduraduna, koordinatzalea

\*\*\* = Euskalki aldatzailea

- [ ] artean sartu dugun informazioa liburuak berak dakarrenetik aparte lortua da.

## **UNESCOREN GAI-TAULA**

### **01. OROTARIK**

- 011. Zibernetika. Ikerketa zientifikoak. Zientzia eta ikerketa orohar
- 012. Bibliografia. Bibliotekonomia. Liburutegien zerrendak. Liburutegien deskribapenak. Liburutegi-zerrendak
- 013. Informazioa jeneralki. Kazetaritza. Egunkari eta aldizkariei buruz liburu, erreseina edo antologiak. Urtekariak
- 014. Museoen gidaliburuak. Katalogoak, eta deskribapenak jeneralki
- 015. Haur eta gazte literatura
- 016. Tebeo, komiki eta ixtorioak
- 017. Entziklopedia orokorrak. Hiztegi entziklopedikoak, gai zehatz batiz buruz ez direnak
- 018. Biblio filia. Liburuzaleentzako edizio bereziak
- 019. Saiakera eta artikuluak gai desberdinez. Omenaldiak. Erakusketa eta Batzarre orokorrak. Corporazioak.

### **02. FILOSOFIA**

- 021. Metafisika eta ontologia
- 022. Psikologia
- 023. Logika. Ezagumenduaren teoria. Epistemologia
- 024. Etika
- 025. Estetika
- 026. Filosofiaren Historia
- 027. Jakintza izkutuak
- 028. Astrologia. Igarkizun mainak

### **03. ERLIJIOA. TEOLOGIA**

- 031. Teologia eta erlijio naturala
- 032. Kristau teologia dogmatikoa
- 033. Teologia morala eta praktikoa. Asketika eta Mistika
- 034. Teologia pastorala
- 035. Eskritura Saindua
- 036. Elizaren Historia jenerala. Ordena eta Kongregazio erlijiosoak. Patrologia. Patristika
- 037. Sekta eta erlijio kristauak. Erlilio-polemikak
- 038. Erlilio ez-kristauak
- 039. Eliza kristaua jeneralean. Liturgia. Misioak

### **04. SOZIOLOGIA. ESTATISTIKA**

- 041. Gizartearen eta gizarte zientzien filosofia. Gizarte-taldeak. Familia. Gazteria eta gizartea
- 042. Gizartearen eboluzioa eta historia
- 043. Gizarte dotrinak. Gizarte zientzien historia. Lana eta gizartea
- 044. Sozialismoa eta komunismoa. Marxismoa
- 045. Anarkismoa
- 046. Estatistikaren teoria eta praktika
- 047. Hainbat estatistika
- 048 Demografia. Populazioa. Migrapen oldeak

## **05. ZIENTZIA POLITIKOAK**

- 051. Ekonomia politikoa eta soziala. Aberastasunaren banaketa. Ekonomia industriala. Ekonomiaren historia
- 052. Estatuaren Teoria. Nazioa eta lurraldea
- 053. Estatuaren gizartearekiko eta Elizarekiko erlazioak
- 054. Finantz ekonomia. Finantzak. Finantza publikoa. Aurrekontuak eta zerga eta fiskal politika. Zor publikoa
- 055. Barne politika. Alderdi politikoak
- 056. Nazioarteko politika
- 057. Jabego pribatua. Kooperativismoa. Jabetzaren sistema komunitarioak eta kudeaketa
- 058. Finantza pribatuak

## **06. ZUZENBIDEA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOA. AURRIKUSPENA. ASISTENTZIA SOZIALA. ASEGURUAK**

- 061. Zuzenbide pribatua. Zuzenbide zibila. Zuzenbide prozesal zibila. Jabetze intelektual, artistiko eta industrialeko zuzenbidea. Antolamendu judiziala
- 062. Zuzenbide naturala
- 063. Merkatal Zuzenbidea. Finantz Zuzenbidea
- 064. Nazioarteko zuzenbidea, diplomatikoa eta konstituzionala
- 065. Zuzenbide penala. Kriminologia. Zuzenbide militar, itsasoko eta airekoa
- 066. Jurisprudentzia
- 067. Zuzenbide publikoa. Zuzenbide konstituzionala. Zuzenbide politikoa. Zuzenbide administratiboa. Zuzenbide fiskala. Zuzenbide kontentzioso-administratiboa
- 068. Zuzenbide Kanonikoa eta eliztarra
- 069. Gizarte-segurantza. Mutualismoa. Lan-Zuzenbidea. Aseguroak. Onagintza

## **07. ARTE ETA ZIENTZIA MILITARRAK. ARMAMENDUA**

- 071. Lurreko, Itsasoko eta Aireko Armaden Organizazioa
- 072. Taktika eta Estrategia militarrak. Armamendua
- 073. Itsaso eta aireko historia militarra. Geografia militarra
- 074. Politika militarra. Biziota militarra. Jai militarrak. Uniforme, bandera eta insignia militarrak
- 075. Irakaskuntza militarra. Reklutamendua eta mobilizazioa
- 076. Fortifikazioa eta erabilera militarreko edifizioak

## **08. IRAKASKUNTZA. HEZKUNTZA**

- 081. Hezkuntzaren teoria eta filosofia. Hezkuntzaren inguruko kongresu, batzarre, bilera eta mintegiak
- 082. Hezkuntz sistemak. Hezkuntz politika eta ikasketa-planak. Irakaskuntzaren, ikasleen eta irakasleen problemak. Irakaskuntzaren Pedagogia eta Metodologia, psikopedagogia, orientazio profesionala. Testak
- 083. Hezkuntza sexuala
- 084. Haur Hezkuntza (HH). Oinarrizko Irakaskuntza. Irakaskuntza horietarako testuliburuak
- 085. Lehen Mailako Hezkuntza (LH). Irakaskuntza horretarako testuliburuak
- 086. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH). Irakaskuntza horretarako testuliburuak
- 087. Subnormalen hezkuntza. Talde bereziak
- 088. Goi mailako eta unibertsitateko irakaskuntza
- 089. Irakaskuntza profesionalak. Emakumearen hezkuntza

## **09. MERKATALGOA. KOMUNIKABIDEAK. GARARIOAK**

- 091. Merkatalgoaren teoria
- 092. Barne merkatalgoa. Merkatuaren disiplina
- 093. Kanpo merkatalgoa. Exportazioa eta importazioa. Muga zergak
- 094. Komunikabideak
- 095. Merkatal garraioak. Autobideak. Zirkulazioa

096. Postak  
097. Pisu eta Neurriak. Metrologia. Normalizazioa

## **10. ETNOLOGIA**

101. Giza arrazak  
102. Biziota pribatu eta publikoetako ohitura eta usadioak  
103. Folklorea  
104. Tradizio eta kondairak  
105. Feminismoa. Emakumearen kondizio soziala  
106. Zeremoniala, etiketa eta protokoloa. Urbanitatea  
107. Modak. Edertasunaren zaingoa, janzkia, Apaingailuak, tresnak  
108. Zuhurritzak, Atsotitzak, ateraldiak eta izkirimiriak  
109. Nomadak, Ijitoak, eta beste minoria etnikoak

## **11. HIZKUNTZALARITZA. FILOLOGIA**

110. Toponimia  
111. Filologia eta Hizkuntzalaritza konparatua. Filologiaren historia. Euskara orokorrean. Lingüistica  
112. Filologia anglosaxoa. Filologia germaniarra. Hizkuntza alemanak eta eskandinaboa  
113. Hizkuntza indoeuropearrak. Hizkuntza semitikoak  
114. Filologia erromanikoa. Hizkuntza frantsesa, italiarra eta besteak  
115. Filologia iberiarra. Gaztelera, portugalera eta dialektoak  
116. Soziolinguistica. Hizkuntzaren normalizazio soziala. Euskararen historia soziala  
117. Hizkuntz ikerketa. Euskararen normalizazio linguistikoa. Glotodidaktika  
118. Euskararen irakaskuntza. Hiztegiak. Metodoak. Gramatikak  
119. Hizkuntza eikaldekoak, afrikarrak, amerikarrak, eta ozeaniarrak

## **12. MATEMATIKAK**

121. Matematiken filosofia. Matematika jeneralean  
122. Aritmetika. Zenbakien teoria  
123. Algebra. Trigonometria  
124. Kalkulua. Taula kalkulatzaireak. Joku matematikoak  
125. Matematika estatistika  
126. Geometria analitikoa. Koordenadak  
127. Geometria deskriptiboa. Perspektiba. Topologia  
128. Topografia

## **13. NATUR ZIENTZIAK**

131. Astronomia. Astrofisika. Nautika. Nabigazio-taulak. Astronautika  
132. Meteorologia. Klimatologia  
133. Fisika. Materialen erresistentzia. Fisika molekularra eta atomikoa  
134. Kimika  
135. Geologia. Geologia aplikatua. Meatzeak eta meatokiak. Mapa geologikoak eta estatigrafikoak  
136. Mineralogia eta kristalografia  
137. Biologia  
138. Zoologia. Paleontologia  
139. Botanika

## **14. MEDIKUNTZ ZIENTZIAK. HIGIENE PUBLIKOA**

141. Anatomia  
142. Fisiologia  
143. Patologia. Gaisotasunak. Klinika-medikuntza. Terapeutika  
144. Farmakologia. Toxikologia. Drogak  
145. Ortopedia

- 146. Pediatria. Geriatria
- 147. Higienea. Janariaren, lanaren eta adimenaren higienea. Osasun publikoa. Osasunaren zaingoa. Airearen, uraren eta hiriaren higienea
- 148. Albaitaritzan
- 149. Ginekologia. Obstetricia

#### **15. INJINERUTZA. TEKNOLOGIA. INDUSTRIAK. ARTE ETA OFIZIOAK**

- 151. Injinerutza mekanikoa eta elektronikoa. Elektronikoa. Informatika
- 152. Itsas injinerutza
- 153. Injinerutza aeronautikoa
- 154. Eraikuntzaren, uraren eta sanitatearen injinerutza
- 155. Meatzelana. Burdingintza
- 156. Industria kimikoak, azala, larrua, plastikoa, kautxoa
- 157. Injinerutza zibila. Bideak, ubideak eta portuak. Trenbideak
- 158. Arte eta ofizioak. Hainbat industria
- 159. Eguraren, oihalaren, beiraren eta zeramikaren industriak

#### **16. NEKAZARITZA. OIHANLANTZA. ABELAZKUNTZA. EHIZA ETA ARRANTZA**

- 161. Ekologia eta ingurunearen babesia
- 162. Agronomia
- 163. Nekazal laboreak
- 164. Jardingintza eta lorelantzatza
- 165. Zuhailtzatza eta oihanlantzatza
- 166. Abelazkuntza. Erlazantza. Zetar-hazkuntza. Zooteknia, Etxabereak
- 167. Kontserba industriak. Esne industriak
- 168. Ehiza
- 169. Arrantza. Arrain-hazkuntza. Molusko-hazkuntza. Etxe-aquariumak

#### **17. ETXE EKONOMIA**

- 171. Etxearen antolakuntza eta administratza
- 172. Sukaldea. Gastronomia. Kokteleria
- 173. Etxebizitza, honen tresnak eta apaingarriak. Mahainaren zerbitzua
- 174. Maiztergoa. Jabego horizontala
- 175. Haurren zaingoa eta hezkuntza

#### **18. ANTOLAKUNTZA**

- 181. Antolakuntza metodu eta sistemak
- 182. Entrepresen antolakuntza
- 183. Lanaren arrazionalpena
- 184. Merkatal antolakuntza
- 185. Inprimategia. Argitalpenak. Liburuaren edizio eta salmenta
- 186. Kontaduria eta administratza
- 187. Dokumentazioa eta artxiboak. Litografia
- 188. Publizitatea. Eskaparismoa

#### **19. ARTE EDERRAK**

- 191. Artearen filosofia eta kritika
- 192. Arkitektura. Hirigintza
- 193. Eskultura. Dominagintza
- 194. Margoak, marrazkiak, grabatuak, estanpak, kartelak
- 195. Fotografia eta zinematografia
- 196. Musika eta musika-tresnak
- 197. Artesautza. Zeramika, tapizeria, altzariak, bordatuak
- 198. Irratia. Telebista
- 199. Antzerkia. Zirkua. Ballet-a

**20. JOSTALDIAK. DENBORAPASAK. JOKOAK. KIROLAK**

- 201. Futbola. Kinielak. Saskibaloia. Eskubaloia. Euskal pelota
- 202. Xake jokoa
- 203. Tauromakia
- 204. Motokirola, zaldi kirolak. Zaldi lasterrak. Galgo lasterrak. Oilar-burrukak
- 205. Atletismoa. Boxeoa, esgrima, tiroa, judoa, karatea. Hezkuntza fisikoa. Txirrindularitza
- 206. Mendia. Eskia. Patinaketa. Eskurtsoak. Ibilaldiak
- 207. Igeriketa. Ur kirolak
- 208. Bildumak. Filatelia. Bitolzaletasuna
- 209. Karta eta saloi jokuak. Gurutzegramak. Denborapasak

**21. LITERATURA**

- 211. Literatur kritika. Literaturaren historia
- 212. Elaberria eta narrazioa
- 213. Olerkia
- 214. Antzerkia
- 215. Herri-literatura. Bertsoa
- 216. Literatura frantsesa eta espaniola
- 217. Literatura germaniarra eta anglosasoia
- 218. Generoak nahasian
- 219. Entseiua. Antologia. Idazlan-bilduma. Poligrafia. Artikulu periodistikoak. Bidai-liburuak. Hitzaldiak. Gutunak

**22. GEOGRAFIA. BIDAIAK**

- 221. Geografia unibertsala
- 222. Geografia nazionalak
- 223. Bidaia. Aurkikundeak. Ikerkundeak
- 224. Eskualde geografia. Bidaia eta turistaren gidaliburuak
- 225. Atlas. Kartografia
- 226. Geografia ekonomikoa
- 227. Euskal Herriko Geografia
- 228. Geografiaren historia

**23. HISTORIA. BIOGRAFIA**

- 231. Historiaren filosofia
- 232. Historiaren zientziak. Historiaren zientzia lagungarriak. Diplomatika. Epigrafia, Numismatika
- 233. Historia Unibertsala, Euskal Herriaz kanpokoa
- 234. Euskal Herriaren historia. Historiaurrea
- 235. Euskal Herriko garai baten nahiz eskualde baten historia. Gertakariak
- 236. Zibilizazioaren eta kulturaren historia
- 237. Biografia. Oroitzapenak
- 238. Genealogia. Deiturak. Heraldika. Noblezi tituluak. Kondekorapenak

# **EUSKAL LIBURUAK 1997-1998**

## 01 - OROTARIK

**011**

### ZIBERNETIKA. ZIENTZIA ETA IKERKETA

BANDRES UNANUE, Luis Mari

*Zientzia XIX. mendean. (Zientziaren historiografia - III)* • 295 or., 21 cm. • bil. Zientzia eta Natura ISBN 84-89772-15-0  
Donostia, Gaiak, 1998

EUSTAT

*Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jarduerai buruzko estatística: 1995 / Estadística sobre actividades en investigación científica y desarrollo tecnológico 1995* • eb., 171 or., 26 cm.  
ISBN 84-7749-279-4  
Gasteiz, Euskal Estatistika-Erakundea, 1997

EUSTAT

*Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jarduerai buruzko Estatística (I+G) 1996 / Estadística sobre actividades en investigación científica y desarrollo tecnológico (I+D) 1996* • eb., 114 or., 25,5 cm.  
ISBN 84-7749-307-3  
Gasteiz, Euskal Estatistika-Erakundea, 1998

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (E.J.)

*Ikerkuntzako Euskadi Saria: 1997ko deialdia / Premio Euskadi de Investigación: Convocatoria 1997* • 45 or., 24 cm.

Gasteiz, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1998

JASTROW, Robert; TURING, Alan M.; SEARLE, John

*Giza garuna eta ordenadorea (Garunaren eholizioaz)* • itz. Gaiak • 292 or., 21 cm. • bil. Zientzia eta Natura ISBN 84-87203-98-1

Donostia, Gaiak, 1997

MORIN, Edgar eta beste

